

2. KOADERNOA:

GABON ALDIA

(abenduak 24 – urtarrilak 9)

1. Bizitzatik hasita

Gaur Gabon eguna da. Ingurua apaingarri koloretsu biziakin eta Gabon zoriontsuak opatzekoekin beterik edukiko duzu beharbada. Baliteke jendea azaroa amaitu baino lehen hastea hori dena prestatzen. Hedabideetako iragarkiek akaso distira kendu diote jai honi. Egun hau familiakoekin ospatzen zenuenean nolako poza igartzen zenuen gogoratuko duzu beharbada. Zuk zeuk ere parte hartu izango zenuen inoiz ospakizun honen prestakuntza materialean. Zure poza beste batzuekin banatuko zenuen zorionak opatzeko txartela bidaliz hurkoei eta maite dituzunei, edo opari bereziak erosita zure bizitzan garrantzitsuak direnentzat, edo etxean argi bereziak jarriz edo “jaiotza” prestatuz etab.

Prestakuntza horiez gain, Gabonetarako prestakuntza espirituala hasiko zenuen Abenduko elizkizunekin. Abendu aldian Jauna datorrenenerako erne egoteko prestatu zara. Elizarekin otoitz egin duzu: “Zatoz, Jauna” eta San Joan Bataiatzaileari lagundu diozu Jaunaren bideak prestatzen, eta aurkitu duzu barruko bidea egiteko deitua izan zarela. Denbora izango zenuen beharbada zure bokazioaz pentsatzeko, Mariari, Joseri, Zakariasi, eta abarri egindako deiak irakurtzean. Horrek denak gogoeta eginarazi dizu beharbada, jaiegun hau zentzu handiagoz nola prestatu, iraganeko jokabide espiritualak eta oraingoak konparatuta. Prestakuntza guztiok Jaunaren graziari laguntzeko garrantziaz kontzientzia handiagoa hartzeko dira.

Aurten Abenduak sutegia eguneroko bizimoduan esperientzian sartzeko bidea ireki zuen, “*quid prodest*”aren bitartez, zure bizitzaren zentzua aztertzeko konbita eginez. Gabon aldi hau eragingarri bat da zure barrura begiratzeko, Ebanjelioko pertsonaien begiekin eta jai ospakizun nagusien ikusian. Garai honetako gertaera eta pertsonaia nagusiek zeure burua hobeto ulertzen lagun diezazukete: Familia Santua, artzainak, hiru erregeak, Urteberri, Mariaren handitasuna, Jainkoaren Ama eta Jainkoaren Bataioa zirikatzaile izango dituzu bila jarraitzeko harik eta Jaunarekin bat egin arte.

Zure “*quid prodest*” bidea hasteko Gabon aldi honetan:

1. ariketa

Zergatik ez duzu jartzen “jaiotza” bat zure gelan eta erreparatu zer sentitzen duzun bitartean?

Edo

Hartu denbora tarte bat iragarkiak ikusteko prentsan eta telebistan garai honetan eta erreparatu barruko erreakzioari.

Edo

Barruan halako ariketak egiteko kontrako jarrera sentitzen baduzu, ez arduratu. Bat egin barruko mugimendu horiekin. Zeure burua hobeto ezagutzen lagunduko dizu.

2. Gogoeta

Zu pertsona oso garrantzitsua zara

“Hitza haragi egin zen eta gure artean bizi zen” (Jn 1, 14). San Joanen hitzok gogoratzen digute Jainkoa gizaki egin dela gu bezala. “Jainkoa gurekin” honen helburua da gure ahultasunarekin eta gure heriotzarekin bete-betean bat egitea eta elkartasuna izatea. Horrela gogoratzen digu Bera beti dagoela gurekin. Gure Jainkoaren edertasuna bere eskuzabaltasuna da, gure itsusitasuna estaltzeko. Bera gizaki bekataria egiteko husteak (2Kor 5, 21; Fil 2, 7) argi erakusten du haren begietara zeinen garrantzitsua zaren eta zenbat balio duzun.

Jainkoa hain eskuzabala bada zaren moduan onartzean, zergatik ez duzu zeure balioa aitortzen? Hainbeste jakintza eremutan landu eta gero, zeure balioa eta duintasuna aitortzeko gai ez bazara, zertarako balio dizu adimeneko gaitasunak? Jendearen, lekuen eta gauzen ontasuna eta edertasuna estimatzeko kapaz zarenean eta, hala ere, zeure izatearen edertasuna eta ontasuna gozatzeko gai ez zarenean, zer lortuko duzu bizitzan? Zer lortuko duzu benetan zer zaren maskara faltsuen atzean ostenduta, pertsona zoragarria bazina bezala agertzeko? Jainkoa haragi bihurtzeak zaren bezala onartzeko konbitea da. Hori da hura zure bizitzan haragiztatzeko aitortza eta errespetua.

2. ariketa

Jainkoa haragiztatzearen argitan zure bizitza gero eta gehiago baloratzen laguntzeko ariketa gisa, ohar hauek betetzeko konbitea egiten zaizu:

- ❖ Gabon aldi honetan, elkarteko kaperara zoazen bakoitzean begiratu arretaz Jesus umearen irudiarri eta jabetu zure umezaroko eta hazkuntza denborako egunekin. Bilatu hazkuntza horretan zure bizitzako alderdi onak eta txarrak. Izan zaites esker onekoa esperientzia horientatik guztiengatik.

Edo

Interesa badaukazu, zure ahuleziak eta indar-guneak aurkitzen lagunduko dizun ariketa egin dezakezu:

- ❖ Idatzi sutegiko koadernoan alderdi esanguratsuenetakoak, onak eta txarrak, zure bizitzan.
- ❖ Erreparatu idazten dituzun bitartean barruan sentitzen duzunari. Eta hori egitean, jabetu babeserako dituzun trikimailuekin.
- ❖ Batzuetan gure barruan sentitzen dugu, Jainkoak onartzen bagaitu ere, zaila dugula gure akatsak onartzea eta geure buruarekin bakeak egitea. Saiatu zaitez alderdi txarrak bizitzako ekintza gisa onartzen.

Edo

Kristoren jaiotzako lauki baten zirriborroan Bibliako pertsonaia batzuk aurkitu dituzu, Jesusen jaiotzaren kontakizunaren parte direla. Ahalegindu zehazten zeinekin bat egiten duzun gehien eta zer toki daukazu historian. Zure ustez zein dira horretarako arrazoiak?

Zirriborroak izan behar ditu leizea, Maria, Jose, aingerua, Jesus umea, artzainak, ostalaria, abereak, hiru Erregeak eta ingurua herriko jendearekin, etab.

Nire jatorria: nire familia

Jauna-gurekin delakoak aukeratuekin munduaren azkeneraino egongo dela agindu du (Mt. 28, 20). Gure bizitzaren hasieratik laguntzen digu gure guraso, neba-arreba eta beste batzuen bitartez. Hura gure bizitzan egoteak era askotara eraikitzen lagundu digu. Denok ditugu esperientzia onak eta txarrak gure familietan: maitasuna, bazterketa, haserrea, pobrezia, erosotasuna, etab. Hori dela eta, gure jokabideek gaur egun badute zerikusirik hasierako esperientzia horiekin. Gure prozesu pertsonalean gure gurasoek eta familiek ezinbesteko egitekoa izan dute gure giza eta kristau-prestakuntzan.

Esperientzia horien aurrean zure erantzuna esker onekoa izan daiteke. Neba-arrebarik badaukazu berdintasun eta ezberdintasunen bedeinkapenak arakatu ditzakezu, zuen arteko bat egite eta haserrean. Aldi berean, baliteke familiako bizitzan ahaztezinako une txarren batzuk izatea. Oraindik eragiten dizutenak ere bai, beharbada. Lor hori bizitza osoan aldean eramatea ez da osasungarria. Esperientzia horiei onerako aurre egin eta harreman hautsiak konpontzean hobeto sentituko zara, izan ere, zoriotsu izateko eta pozik egoteko artea ikastera deituta zaude, arazoak gorabehera.

Familia Santuaren jaia konbitea da familiarekin harremanetan jarri zaitez, familiak zure bizitzan daukan garrantzia baloratu dezazun. Ahalegindu haurtzarora itzultzen ariketa hau eginez:

3. ariketa

- ❖ Hartu zure etxeko argazki bat eta saiatu harekin oraindik ere txunditzen; gogoratu inguruak, bizilagunak, etxeko animaliak, lorategiaren usaina, kortakoa, etab.
- ❖ Hartu zure familiaren argazki bat eta begiratu arretaz etxeko guztiei banan banan. Gogoratu familiako bakoitzaren gertaera garrantzitsuren bat. Jabetu zure emozioez begiratzen diezun bitartean. Ahalegindu jabetzen zu osatzen izan zuten garrantzia ere. Bakoitzak mezu bat dauka zuretzat. Saiatu haiei entzuten. Haietarikoren bati buruz esperientzia txarrik baduzu, egin ahalegina hura bereizi eta gertaera horrekin bakeak egiteko.

Lagunak eta ezagunak

Gabon aldiak San Joan apostoluaren jaia dakar. Ebanjelioen arabera, hura izan zen Jesusen lagunik onena. Jesus nora, han zegoen bera ere. Jesusen ondoan egon zen beti (Jn 13, 23), baita heriotzako une larrian ere (Jn 19, 26). Gainera, Jesusek lagun esan zien ikasleei, haiekin ireki ahala (Jn 15, 12- 17). Emakume batzuek ere jarraitu zioten, eta haiek ere laguntzat hartu zituen (Lk 8, 1-4). Farisearrek zerga-biltzaileen eta bekatarien laguntzat ere jo zuten (Mt 11, 19). Haien lagun izatea zen berak gizarteko mailarik apaleneko jendearen alde egitea erabakita zuelako (Mt. 9, 12). Haien lagun izateko erabakiak argi erakusten du haien arteko bat izateko, horretaraino heltzeko prest zegoela (Fil 2, 7; Heb 2, 17).

Gure bizitzan prestakuntzarako zeresan handia dute lagunek. Adiskidetasuna lotura santua da, aurretiaz sinatutako ez baldintza ez hitzarmenik ez daukana. Familiaren barruan neba edo arreba gisa sortzen bagara ere, adiskideak bakoitzak berak aukeratzen ditu. Gure bizitzan beste batzuk hartu eta onartzea norberaren erabakiaren emaitza baino ez da. Eta lagun horiekin bakarrik irekitzen gara aholkua edo babes behar dugunean.

Beharbada gogoratuko dituzu era batera edo bestera lagundu dizuten adiskideak. Beharbada ez daukazu benetako adiskiderik eta azalekoa izan nahiago duzu, konpromisorik ez izateko. Beharbada eskarmentua hartuta zaude adiskideekin esperientziaren batzuetatik, adibidez, saldukeria, aprobetxatzea, zurrumurrak, aurrez aurrekoak, erronkak, etab. Lagunak galdu edo haiekin harremana eten egin duzu akaso hainbat arrazoirengatik: jelsia, harrokeria, nortasun handiegia, samurtasunik eza, norberaren intimitatea ez errespetatzea, zalantzak, etab.

San Joan Apostoluaren jaia deia da aztertzeko ea lagunek zure burua hobeto ezagutzen lagundu dizuten. *“Quid prodest”* printzipioak zalantzan jartzen zaitu: jende asko ezagutu eta

jende askorekin harreman izan badezakezu ere, konfiantza osoko lagunik ez badaukazu, zertarako da hainbeste pertsona izatea inguruan? Maite zaitzatela edo denak gustura uztea baino gura ez baduzu eta, aldiz, atzera egiten duzunean oharra egin diezazukeen lagunari beldurra badiozu, zertarako duzu jende guztiaren gustukoa izatea? Zuk beste batzuen gidari izan nahi baduzu eta zure lagunek zintzo gidatzea nahi ez baduzu, zer balio du zure gidaritzak beste batzuentzat? Beste pertsona batzuekiko harremanak laguntzen dizu benetan zure burua ezagutzen eta zarena izaten?

Hurrengo ariketetan laguntza ematen zaizu lagunak eta beste batzuek daukaten garrantziaz jabetu zaitezen, zeure burua ezagutzeko laguntza moduan:

4. ariketa

- ❖ Batu Gabonetan hartu dituzun zorion-txartelak eta opariak. Irakurri mezuak eta gogoratu lagun eta jende horiek zure bizitzan izan duten garrantzia eta eragina.
- ❖ Pertsona batzuk gure lagunak izatera heltzen dira eta beste batzuk geuk aukeratzen ditugu. Bilatu zure lagunak zerrendan zeuk laguntzat aukeratutakoak eta zure lagun egin direnak.
- ❖ Ahalegindu ezagutzen txikitatik lagun izan dituzunak eta jabetu zaren modukoa izateko izan duten garrantziaz.
- ❖ Zure elkarteko testuinguruan, lagunak edo ezagunak dituzu? Lagunak badituzu, zerk bereizten ditu hartakotzat?
- ❖ Berrikusi adiskidetasun esperientziak.

Nire elkartea

Gure bokazio-esperientzia Jainkoaren esperientzia da, eta baita esperientzia pertsonala ere beste batzuekin. Gure elkartea gure nortasuna aurkitzen dugun lekua da, beste batzuen aldean. Gure elkarrekin kideek geure burua hobeto ezagutzen laguntzen digute. Bakoitzaren egitasmoa gure harremanen emaitza da. Ekintza eta erantzuna, arrazoia eta ondorioa printzipioak guran arakatzeko laguntzen digu gure elkarteko une bakoitzean nola erantzuten dugun hobeto jakiteko. Hortik datorkie gure elkarrekin heldutasunean hazten laguntzeko daukaten indarra. Heldutasunean gora egiteko prozesu horretan esperientzia on

eta txarrei aurre egin beharrean izaten gara, eta horiek erakusten digute pertsona gisa benetan daukagun irudia aurkitzen. Gure elkarteek, hain zuzen, asko egin dezakete gure buruarekin harremanean jartzeko, beren ekarpen on eta txarren bitartez.

Zentzu horretan, gai zara onartzeko zure elkarteko kideak Jainkoaren dohainak direla? Zure elkarteko gertaera batzuek beharbada zalantzan jarriko zaituzte galdera horri erantzutean. Baina aldi berean, zuk ezin dituzu ukatu elkartetik hartu dituzun onurak. Arazo gorabeherak eta guzti, une txarrek hurbildu egin gaituzte elkartasunean bizitzeko. Batek sufritzen duenean, denok sufritzen dugu, gorputzean gertatzen den moduan (1 Kor 12, 26). Horregatik barruko erantzun pertsonal horiek deia dira harreman ona izateko zeure buruarekin eta besteekin. Hor aurkituko duzu gizarteko izakia zarela eta familia batean edo elkarte batean bizi behar duzula. Ahalegin horretan ekitea zure barruko bizitzaren pentzudan dago, zeure burua irabaztera eramango baitzaitu, bidean beste zerbait galduta ere. Zure barru mundu horrekiko harremana da Espirituan bizitzea, eta horrek eramango zaitu behar ez diren gauzak alboratzera eta behar-beharrezkoarekin betetzera (Lk 18, 22).

“*Quid prodest*”-en prozesuko bide honek elkarteak zure barru bizitzan daukan garrantzia aurkitzen gonbidatzen zaitu. Zer lortu duzu elkarteari ezikusi eginda? Zertarako balio du elkarteko kideekin kritikako jarrera txarra izateak? Zertarako balio du arau espiritualak zehatz betetzeak barru bizitzan ez bazara hazi besteekin harreman onuratsuak izateko?

Gabon aldi honetan Inozenteen jaiak bidea emango dizu beste batzuekin dituzun harremanak aztertzeko. Herodesek Mesias jaio zenean mehatxua sentitu zuen moduan, baliteke zuk ere mehatxu edo segurtasun falta sentitzea besteekiko. Espirituan bizitzeak gure etenak sentitzera eramaten gaitu, eta hori da bizitza osorako lehenengo pausoa. Elkartearen zeregina zure barru bizitzaren prestakuntzan ikusita, zergatik ez egin ondoren datozen ariketa hauek?

5. ariketa

- ❖ Hartu eskuetan oraingo elkarteko argazki bat. Jarri arreta kide bakoitzari, banan-banan, eta erreparatu zure barruan eragiten duten erantzunei.
- ❖ Zure ustez, zer irabazi duzu zure burua eraikitzean elkartean dituzun harremanen gainean egindako gogoetaren bitartez?

Nire ingurua

Gizakien sufrimenduak ikusi edo haien gainean hitz egiten entzuten dugunean, hunkitu egiten gara. Barruan zerbaitek eragiten digula igartzen dugu. Ezin dugu eragotzi errukituta hurbiltzea gertatzen diren tragedien biktimengana. Hori dena guztiz gizatiarra delako bihotzean

oihartzuna sortzen du (GS. 1). Gizakion miseria eta sufrimenduei begira, ezinezkoa dugu begiak ixtea. Sufrizten duten neba-arreba horien hasperen eta negarrek haien mina guk sentitu nahi izatea ekartzen digute. Barrutik, erronka gisa, haien errealtateari gurea balitz bezala begiratu beharra barrundatzen dugu, eta guk zorrean daukagun zeregina balitz moduan onartzen. Jesus herri eta herrixketan ibiltzen zenean eta jendearen errealtatea aurkitu, errukiz gainezka zegoen haiekin (Mt 9, 36). Entzun egiten zien eta haiek hitz egiten zioten Beragandik erantzuna itxaroten zutela. Gure barrua nola eraikitzen dugun, hala bat egiten dugu gizartearekin.

Naturaren eta gizakien edertasunaz txunditu egin gaitzke. Ikuste hutsak haien sortzailea ekartzen digute gogora, ordena eta funtzionamendu zoragarria. Erronka jartzen digute haiengandik ikasteko eta zaintzeko konpromisoa hartzeko. Hori dena haiei entzutea garamatzen barruko bidea egiteko gaitasunaren emaitza da. Izan ere, haien errealtatea ez da mutua: hitz egin eta dei egiten digu.

Aldi berean aurkituko zenuen, beharbada, inguruan daukagun munduaren deiei ezentzun egiten dien jendea. Bihotza gogortu zaie eta ez dute ezer jakin nahi halako errealtateekin. Igarriko zenuen egoismoak itsu bihurtzen dituela, eta ez direla gai errealtateari bihotz errukitsuz begiratzeko. Pentsa dezakezu norbait gizakia dela gai ez bada gure gizarteko edertasuna nahiz kaltea ikusteko? Pertsona bat benetan gizakitzat bakarrik har daiteke gai denean inguruarekin elkarrizketaren bitartez hazteko. Errealtatearekin sentiberatasunik ez izatea norberarentzat itsua eta ezjakina izatea da.

Gu deituak gara “zuhur egotera gure munduko eta Elizako hainbat alderditan zer gertatzen den ikusteko eta inoren esku jartzera irizpide misiolaritik erantzuteko”... (HAC 4.d). Errealtatea entzutea eta hari erantzutea hitza barru-barruan entzutearen emaitza da (Heb 4, 12-13). Hitzak deiari errealtatetik ongi etorria egiteko eragiten dizu. Zenbat eta Hari gehiago entzun, hobeto haziko zara pertsona gisa.

Egunean egotea eta errealtatearen kontenplaziozko irakurketa egitea dira irizpideak Jainkoari nire barruan entzuteko alderdi hori sendotzeko. “Egunean egotea” garaiko zeinuak errealtatearen errespetu handiz irakurtzeko gaitasunaren emaitza da; eta errealtatearen kontenplaziozko irakurketa fedez eta maitasunez entzuteko gaitasuna da. Bizitzako alderdi horietan heltzeko dauden bitartekoen artean, hedabideek eta informazio teknologikoak aparteko egitekoa betetzen dute.

Nola erabiltzen dituzu? Informatzeko bakarrik dira edo pertsona hobea prestatzeko bitartekoak dira? “*Quid Prodest*”en ikuspegitik, esango zenuke internetek eta gainerako hedabideek, informazio-erreak eta guzti, zure buruari entzuten lagundu dizutela? Edo arlo horietan daukagun abileziak zure nortasuna irabazteko konpromisoa sakontzen lagundu dizu? Alderantziz, zer aprobeztatzen duzu arlo horretako abileziatik zeure balioa ezagutzeko

lagungarri izan ez baduzu? Errealitatearen azterketa kritikoak zure bizitzaren errepasso kritikoa eginarazi ez badizu, zer lortu duzu hainbeste jakintzaren bitartez?

Hurrengo ariketa zure buruari eta inguruan duzun errealitateari entzuteko gaitasuna handitzen laguntzeko da. Zure esperientziak elkartarekin banatzeko konbitea da.

6. ariketa

- ❖ Goiz edo arratsalde batean egin ibilaldia zure hiriko ingururen batetik. Hiriko zati horretako kaleetatik zoazen bitartean, erreparatu ikusten duzun guztiari, begiratu begien aurrean sortzen zaizkizun egoera guztiei: jendea hainbat jarreratan, dendak, autoak, animaliak, etab.
- ❖ Hori dena ikusten duzun bitartean, jabetu zaitetz barruan eragiten dizuten erantzunaz; emozioak, gizarte arlokoak, politikoak, espiritualak, etab.
- ❖ Ariketa bera egin dezakezu autobusean, trenean, hegazkinean edo itsasontzian zoazenean ere.

3. *Lectio Divina* Gabon aldi honetan

Lectio Divina praktikan jartzea lagungarria dugu Jainkoaren Hitzarekin lotuta jarraitzeko. Helburu nagusia da entzutea etengabe hitz egiten digun Jainkoari. “*Quid prodest*” konbitea da gure Maisuaren ahotsa bihotz barruan entzuten ikasteko arterako. Gabon aldi honetan irakurgaietan ageri diren jai eta pertsonaiei arreta jartzeko konbitea daukazu eta haiekin bat egiten saiatzeko, batez ere Maria gure Amarekin eta San Joserekin, “*quid prodest*”en eredu baitira. S. Lukasek Maria aurkezten duenean, gertaeren gainean bihotz-bihotzean gogoeta eginez, Jainkoari entzuteko zeukan apaltasuna erakusten du. Aldi berean, S. Mateok San Jose aurkezten duenean, Espirituak bere barruan egiten dituen mugimenduak zehatz entzuten dituela erakusten du.

Larunbata Abenduak 25	Eguberri	<ul style="list-style-type: none">• Is 52, 7–10• Jn 1, 1–18	Gaur poz eguna dugu Jainkoa gutariko bat bihurtzen ikusten dugulako. Jainkoa haragiztatzeak agerian jartzen du haren eskuzabaltasuna, eta gizakiaren duintasuna aldarrikatzen du. Gizakion artean bizimodua egiteko gogoak argi erakusten du zeinen eskuzabala den gu garen moduan onartzean. Jainkoa prest badago garen bezala onartzeko, zergatik ez dugu gure burua onartu behar eta horrela bidea ireki
--	----------	--	---

			bizitza zoriotsurako?
Igandea Abenduak 26	Familia Santua. S. Esteban, protomartiria	<ul style="list-style-type: none"> • Koh 3, 2-6.12-14 • Mt 2, 13-15.19-23 	Familia Santua konbitea da konturatzeko Jainkoaren maitasunaz gure familietan. Maria eta Joseren ardura Jesus hazten ikusita, esker onez ekartzen digu gogora gure gurasoen eskuzabaltasuna eta sakrifizioa gurekin. Maria eta Joseren arreta Jesus babesten eta hezten guretzat dei bat da, azter dezagun nolako jarrera daukagun Jesus gugan dagoela lantzeko eta aurrera eramateko.
Astelehena Abenduak 27	San Joan, apostolu eta ebanjelaria	<ul style="list-style-type: none"> • 1Jn 1, 1-4 • Jn 20, 2-8 	San Joanez pertsonalki bizi izan zuen Jesusen adiskidetasuna. Horri esker konturatu zen jendearekin zakarra zela ("trumoiaren kumeak"). Jesusekin egoteko motibazioa garbitzen lagundu zion ("haren eskuman esertzeko eskubidea"). Agerian jarri zion lagunaren konbitea beti bere ondoan egoteko. Une larrietan lagunaren ondoan egoteko motibatu zuen. Norberaren sakrifizioak beste batzuen alde daukan balioa ezagutzen lagundu zion adiskidetasunak.
Asteartea Abenduak 28	Errugabeen eguna	<ul style="list-style-type: none"> • 1Jn 1, 5-2,2 • Mt 2, 13-18 	Haurrak Jainkoak gu maitasunez zaintzen gaituela adierazteko ikurrak dira. Jaiotzean itxaropen mezua dakarte eta etorkizuna ziurtatzen digute. Haien presentziak bizitza-eskubidea eskatzen du eta gure aldetik harenganako errespetuaren erronka jartzen digu. Herodes giza egoismoaren eta bihotz-gogortasunaren adierazlea da. Bakoitzaren bizitza eta dohain ugaritasuna gogo onez onartzeko eta baloratzeko gaitasunik ezak gugan Herodesen jarrerak eragiten ditu, hala nola, konpetentzia-harremana ez osasungarria, aurkakotasuna, bizitza mespretxatzea, bihotz-gogortasuna gizakion sufrimenduaren aurrean, nagusikeria, etab. Errugabe Santuek besteekiko harremanean samurrak izateko deia egiten digute.
Asteazkena Abenduak 29	Sto. Tomas Becket	<ul style="list-style-type: none"> • 1Jn 2, 3-11 • Lk 2, 22-35 	Simeon Espirituak gidatu zuen. Espirituari entzuteko gaitasuna izan zuen, eta hark eragin zion tenplura joateko Jainkoarekin bat egitera. Harrigarria da ikustea agure batek ume txiki batengan ezagutzen duela Jainkoa etorri dela. Bihotza Jainkoari entzuteko irekita daukatenak gai dira guztiz apaltzeko Jainkoaren misterioa ezagutu eta gurtzeko, ohiko gertaera eta pertsonengan adierazten dela.
Osteguna		<ul style="list-style-type: none"> • 1Jn 2, 	Jesus gorputzez, adinez eta jakituriaz hazteak bidea

Abenduak 30		<p>12-17</p> <ul style="list-style-type: none"> Lk 2, 36 - 40 	<p>ematen digu jabetzeko gure osasun fisiko, buruko eta emozionalaz. Alderdi horietan guztietan hazten joatea bedeinkazioa da. Gure ahuldadearen erakusgarri ere izan badaitezke ere, Jaunarekin esker oneko izateko deia ere badira. Gaixorik gaudenean, ez gaudela bakarrik gogoratzen digu, beste batzuek lagunduta eta kontsolatuta baizik. Osasun onez gaudenean, bizitzaren edertasuna estimatu behar dugu. Gaixoaldian, gure ahultasunaz jabetzen gara.</p>
Ostirala Abenduak 31		<ul style="list-style-type: none"> 1Jn 2, 18- 1 Jn 1, 1-18 	<p>Gaur urteko azken eguna da, eta urtean zehar izan dugun bizitza-esperientzia berrikusteko tarte bat hartzeko konbitea. Jainkoak laguntasuneko presentzia adierazi du zenbait pertsona eta gertaeraren bitartez. Horregatik, haren bedeinkapen guztiengatik eskertuta egon behar dugu eta esker txarrekoak izatearren barkamena eskatu. Jesus gugana hurbildu da. Ondo hartu dugu, gure gidari egin dezan?</p>
Larunbata Urtarrilak 1	Ama Birjina zorionekoa, Jainkoaren Ama	<ul style="list-style-type: none"> Zen 6: 22-27 Ga 4: 4-7 Lk 2: 16-21 	<p>Jainkoaren eskuetatik hartzen dugu Urte Berria. Gaur iragana gogoratu eta etorkizunari itxaropenez begiratzen diogu. 2011. urtea gure Ama Santuaren handitasunaz hasiko dugu. San Lukasek bere ebanjelioan aurkezten digu haren bihotzaren kalitatea. Haren bihotzak gogoeta egin zuen Jainkoak bere bizitzan egindako ekintza guztien gainean. Horrek esan nahi du ez zuela behin ere ahaztu Jainkoaren grazia eta erakusten du haren bizitza intimitate sakonenetik bizi izan dela, Jainkoaren deia entzuteko prest beti.</p>
Igandea Urtarrilak 2	Jaunaren Epifania [San Basilio Handia eta San Gregorio Naziantzokoa]	<ul style="list-style-type: none"> Is 60:1-6 Ef 3: 2-3a, 5-6 Mt 2:1-12 	<p>Hiru Erregeek Jesus Umearen bila egindako bidaia sinbolo bat da eta gure barruan bilatzeko konbitea Jainkoarekin bat egin dezagun. Ilunari aurre egin eta bidean norabidea bilatu behar izan zuten moduan, guk ere une ilunak izaten ditugu eta orientatu beharra, guran ezkutuan Jainkoa dagoela aurkitzeko. Bilaketa horretan gure indarra fedearen ahotsa da, berak ematen digu aurrera egiteko arnasa. Espiritu Santuaren mugimenduak bereizten jakinda bakarrik, zeinen aberatsa izango litzatekeen gure auto-kontzientzia Harengan bizitzeko.</p>
Astelehena Urtarrilak 3	Jesusen Izen Santua	<ul style="list-style-type: none"> 1 Jn 3: 22 - 4: 6 Mt 4: 12-1, 23-25 	<p>Mariak eta Josek umeari Jesus jarri zioten izena, aingeruaren oharrei jarraituta. Izen santua da, izan ere, mundu guztia belauniko jartzen da haren aurrean (Fil 2, 10). Haren izena izen boteretsua da, gaizkia alden du egiten du. Haren izenak jendea salbamenera mugitzen du. Pertsona bakoitzaren izena nortasun</p>

			<p>pertsonal baten adierazpena da. Jesusen izen santuak gure konpromisoa aztertzeko bidea ematen digu, bai besteen izen ona babestekoa bai gure nortasunaren santutasuna zaintzekoa.</p> <p>Edo:</p> <p>Jesusek jendaurreko bizimodua hasten du damutzeko konbitea eginez. Jainkoaren erreinuan sartzeko baldintza bakarra jartzen du Jesusek: konbertsioa. Guk Jainkoaren maitasuna era batera baino ezin dugu igarri: bekatutik graziara bizimodua aldatuta. Konbertsioak gure bizitzako egoera ezagutzen laguntzen digu eta lehenengo urratsa egitera eramanez: ilunetik argira mugitzea, heriotzatik bizitzara, ezjakintasunetik jakituriara.</p>
Asteartea Urtarrilak 4		<ul style="list-style-type: none"> • 1 Jn 4: 7-10 • Mk 6: 34-44 	<p>Jendearen bizitzan errealitate nekosoak igarri zuen guztietan, minetik askatzen saiatu zen Jesus. Haren maitasunaren esperientzia elkartzunerako bizitzaren ataria da. San Pablo Jesusen maitasunak bultzatuta sentitu zen (2 Kor 5, 14). Aita Claretek dio maitasun horrek behartu zuela bera hiriz hiri joatera ebanjelioaren mesedetan. Jainkoaren maitasunaren esperientziak jabeaziko digu zeinen gutxi balio dugun eta esker oneko bizitzara eramango gaitu.</p>
Asteazkena Urtarrilak 5		<ul style="list-style-type: none"> • 1 Jn 4: 11-18 • Mk 6: 45-52 	<p>Jarraitzaileak ez ziren gai izan baloratzeko Jesusek haiekin izan zuen arreta. Ezgaitasun hori zela eta, kanpotik bilatu zituzten konponbideak, Jesusengan berarengan aurkitu beharrean bila ari zirena. Jesusekin bakarkako esperientziak handitu egingo dute gure konfiantza haren laguntzan. Jesusen maitasuna gure bizitza pertsonalean ikusteko gai ez bagara, kanpoan bilatzeko ahalegin guztiak alperrekoak izango dira.</p>
Osteguna Urtarrilak 6		<ul style="list-style-type: none"> • 1 Jn 4: 19-5:4 • Lk 4: 14-22a 	<p>Jesusek Espirituak igurtzita egoteak dituen eragin misiolariak adierazten ditu. Eragin horiek agerian jartzen dute berri onen mezulari, askatzaile eta sendagile izaera. Espiritu Santuaz beterik dagoenak konpromisoa dauka bere dohainak beragan bizitzeko. Espirituan bizitzeak bere bizitza etengabe berrikustera bultzatuko du eta bere nortasuna indartzera.</p>
Ostirala Urtarrilak 7		<ul style="list-style-type: none"> • 1 Jn 5: 5-13 • Lk 5: 12-16 	<p>Jesusek legenardun bat sendatzea guk daukagun sendatu beharra aitortzeko modua da. Izan ere, gu gaixorik gaude, fisiko eta emozionalki. Etenek hainbestean eragiten digute, bizitzeko poza</p>

			galarazteraino. Kanpotik baliteke osasuntsu ematea, baina baliteke barrutik zaurien mina izatea. Jesusen maitasun errukitsua onartzeak esan nahi du ukitzen uzten diogula. Maitasuna da sendabide bakarra sendatu beharreko barruko zaurientzat.
Larunbata Urtarrilak 8		<ul style="list-style-type: none"> • 1 Jn 5: 14-21 • Jn 3: 22-30 	Joan Bataiatzailearen adierazpena bere egitekoaz izan zen “Berak hazi egin behar du eta nik galdu”. Haren bokazioa Jaunaren bidea prestatzea izan zen. Argi zeukan bere misioa Jainkoaren Bildotsaren lekukotasuna ematea zela munduaren aurrean. Jendeak pentsatzen zuenean bera zela Mesias, argi eta garbi esan zuen ezetz. Leiala izan zitzaion Kristoren aurrekoa izateko deiari. Eta zen bezalakoa izateko behar bezain ausarta izan zen. Gure tentaziorik handienetako bat izaten da ez garena izatea eta garenetik beste zerbait izan nahia. Bizitza gozatsua izaten da daukagunarekin konforme egotea, ez daukagunaren ametsetan egon gabe.
Igandea Urtarrilak 9	Jesusen Bataioa	<ul style="list-style-type: none"> • Is 42: 1-4, 6-7 • Eg 10: 34-38 • Mt 3: 13-17 	Bataioa bekatuak barkatzeko da. Jesusek bekatuak ez bazeukan ere, gure bekatari izatearekin bat egin zuen. Parte hartze horretan, Aitak bere semea dela aitortzen du. Gu Jainkoaren seme-alaba jaiotzen gara bataioaren bitartez, bertan garbitzen baitigute bekatari izatea eta beste izaki bat bihurtzen. Bataioa ez da errito hutsa, bekatuaren bidetik baztertze eta bizitza berria hasteko konpromisoa baino. Jainkoaren seme-alaba izatea bekatuetatik etengabe baztertzean zaintzen da.

4. Proposamen lagungarriak